

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 2008/97/EE ZUZENTARAUUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko azaroaren 19koa, Kontseiluaren 96/22/EE Zuzentaraua aldatzen duena, eta eragin tireostatiko eta hormonaleko substantziak erabiltzeko debekua, eta abereak hazteko β -agonista substantziak erabiltzeko debekua ezartzen duena.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik.

ZUZENTARAUAK

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «**DIRECTIVA 2008/97/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO** de 19 de noviembre de 2008, que modifica la Directiva 96/22/CE del Consejo, por la que se prohíbe utilizar determinadas sustancias de efecto hormonal y tireostático y sustancias β -agonistas en la cría de ganado» (*Diario Oficial de la Unión Europea*, L 318/9 de 28/11/2008)

2008/97/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 318/9, 2008/11/28koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2008/97/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,

2008ko azaroaren 19koa,

Kontseiluaren 96/22/EE Zuzentaraua aldatzen duena, eta eragin tireostatiko eta hormonaleko substantziak erabiltzeko debekua, eta abereak hazteko β -agonista substantziak erabiltzeko debekua ezartzen duena

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 152. artikulua 4. paragrafo b) idatz-zatia,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Ikusita Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena ⁽¹⁾,

Eskualdeetako Komiteari aurrez kontsulta egin ondoren,

Tratatuaren 251. artikuluan araututako prozeduraren arabera ⁽²⁾,

alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) 96/22/EE Zuzentaruaren 2. artikuluan ⁽³⁾ ezarritakoaren arabera, debekatuta dago, besteak beste, estilbenoak, estilbenoetatik eratorritakoak, haren gatz eta esterrak eta tireostatikoak merkaturatzea animaliei emateko, edozein dela animalia-espezia.

(2) Hona hemen erabateko debeku horren zergatia: inolako animalia-espezierentzako baimendutako produkturik ez dagoenez, nekezagoa da substantzia horiek gehiegi erabiltzea edo behar ez bezala erabiltzea.

(3) Dena dela, azken urteotako eskarmentua dela eta, batez ere, 1996ko apirilaren 29ko Kontseiluaren 96/23/EE Zuzentaruari jarraiki —animalia bizidunengan eta haien produktuetan substantzia jakin batzuei eta horien hondakinei aplikatu ahal zaizkien kontrol-neurriei buruzkoa ⁽⁴⁾— aurkeztutako hondakinei buruzko plan nazionalekin ikasitakoari esker, egiaztatu dugu produktu horiek behar ez bezala aurkezteak, gehiegizko erabilerari eta horiek behar ez bezala erabiltzeari dagokionez, lagun egiteko animalientzako ez dakarrela ondorio kaltegarriak. Alde batetik, ez delako ekonomikoki errentagarria lagun egiteko animalientzako modu horretan aurkeztea produktuak; hau da, elikagaiak egiteko erabiltzen diren animaliak handiagoak egin daitezten eragiteko moduan.

(4) Eta bestetik, tireostatikoak debekatzeak ondorio kaltegarriak eragiten ditu lagun egiten duten animalien (zakurrak eta katuak) ongizatean; izan ere, animalia horien hipertiroidia gaixotasunari aurre egiteko ez dago beste tratamendurik.

(5) Tratatuaren erantsitako animalien babesari eta haien ongizateari buruzko protokoloak ezarritakoari jarraiki, Erkidegoak eta estatu kideek oso-osorik bete behar dituzte animalien ongizateari buruzko betebeharrak erkidegoko politikak aplikatzerakoan, barne-merkatuari buruzkoak, batik bat.

(6) Horrenbestez, komenigarria da 96/22/EE Zuzentaraua elikagaiak ekoizteko erabiltzen diren animaliei bakar-bakarrik aplikatzea, eta lagun egiteko animaliekiko debekua kentzea, bai eta tratamendu terapeutikoari buruzko definizioa egokitzea ere.

(7) Haragiak eta behi-haragikiek hormona-hondakinak edukitzeak gizakion osasunari eragin diezazkiokeen arriskuei buruz 1999ko apirilaren 30ean emandako irizpenean (2000ko maiatzaren 3an berrikusia eta 2002ko apirilaren 10ean berretsia), osasun publikoarekin zerikusia duten albaitaritza-neurrien inguruko zientzia-komiteak hau eman zuen aditzera: duela gutxi egindako froga askok adierazten dute 17 β estradiola erabateko kartzinogenotzat hartu behar dela, tumoreak sorrarazten edo horiek errazago garatzea eragiten duelako eta, gaineratu zuen, eskura zituen datuak ez zirela nahikoak gizakion osasunari zenbateko arriskua eragin diezaiokkeen kalkulatzeko. Beraz, 2003/74/EE Zuzentaruaren bidez 96/22/EE Zuzentaraua aldatu zen, besteak beste, honako helburu hauekin: animaliak behar baino gehiago hazteko estradiol 17 β erabil dadin betiko debekatzea, eta xede terapeutikoak edo zooteknikoak direla-eta ustiapen-animalia guztiei eman dakiekeen gainerako egoera guztiak dezente murriztea, benetako egoerari eta egoera zientifikoari buruzko azterketa xeheagoa eta estatu kideetan egindako albaitaritza-jardueri buruzko azterketa xeheagoa egin bitartean.

(1) C 10 EO, 2008.1.15ekoa, 57. or.

(2) Europako Parlamentuaren 2008ko ekainaren 5eko Irizpena (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluak 2008ko urriaren 20an hartutako Erabakia.

(3) L 125 EO, 1996.5.23koa, 3. or.

(4) L 125 EO, 1996.5.23koa, 10. or.

2008/97/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 318/9, 2008/11/28koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(8) 96/22/EE Zuzentarauaren 11 *bis* artikulua bidez Batzordeari agindutakoaren arabera, 2005eko urriaren 14a baino lehen egin behar zuen estradiol 17 β ez duen beste sendagai bat (animalientzako) sortzeko aukerari buruzko txostena eta, hala, xede terapeutikoetarako erabili ahal izateko elikagaiak ekoizteko diren animaliekin. Batzordeak adituei aholkuak eskatu zien eta horri buruzko txosten zientifikoa egin zuen; gero, txostena Europako Parlamentuari eta Kontseiluari bidali zion 2005eko urriaren 11n. Txosten horretan adierazitakoaren arabera, estradiol 17 β ez da ezinbestekoa elikagaiak egiteko erabiltzen diren animaliak hazteko, estatu kideetako albitarien artean oso ohikoa zelako beste osagai batzuk erabiltzea (batik bat, prostaglandinak) eta, beraz, elikagaiak ekoizteko erabiltzen diren animaliekin estradiol 17 β osagaiaren erabilera debekatzeak ez ziola inolako eraginik ekarriko edo garrantzi gutxiko eragina ekarriko liokeela abeltzaintzari eta animalien ongizateari.

(9) Informazio objektiboa emanez gero eta sentsibilizazio-kanpainak eginez gero, dagokion araudia behar bezala betetzea eta baimenduta ez dauden substantziak behar ez bezala ez erabiltzea bultzatu daiteke.

(10) Aldi baterako salbuespena eman zen, 2006ko urriaren 14a arte, estradiol 17 β behiak, zaldiak, ardiak eta ahuntzak ernaltzeko erabil zedin. Bestelako produktu eraginkorrak badaudenez merkatuan eta horiek erabiltzen direnez, eta Erkidegorako erabakitako osasun-babesaren maila handia izango dela bermatzeko, ez da salbuespen hori berriro berrituko.

(11) Horrenbestez, 96/22/EE Zuzentaruak aldatu egin behar da.

ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

96/22/EE Zuzentaruak honela gelditzen da aldaketa sartu ostean:

1) 1. artikuluan, 2. paragrafoa b) idatz-zatia testu honek ordeztu du:

«b) “tratamendu terapeutikoa”: Zuzentaru honen 4. artikulua aplikatuz, ustiapen-animaliaren bati, banaka, baimenduta dagoen substantziaren bat ematea, ugalkortasunean aldaketaren bat eragiteko —albitari batek animaliar mediku-azterketa bat egin ondoren—, bai eta nahi ez den ernaldia eteteko ere. β -agonista substantzien kasuan, erditzeko dauden behiei tokolisia bultzatzeko, arnasa-gaixotasunak, gaixotasun nabikularra eta laminitia tratatzeko, eta ekidoei tokolisia eragiteko; ».

2) 2. artikulua testu honek ordeztu du:

«2. artikulua

Giza kontsumorako den haragia eta produktuak egiteko erabiliko diren animaliei II. eranskinean zerrendatuta dauden substantziak merkatuan jartzea debekatuko dute estatu kideek, baldin eta 4. artikuluko 2. paragrafoan xedatutako helburuak ez diren beste batzuetarako erabiltzeko badira. ».

3) 4. artikulua 2. paragrafoa i) tartekia testu honek ordeztu du:

«i) trenbolona alilo ahoz edo β -agonista substantziak ekidoei, fabrikatzaileak emandako baldintzei jarraiki, betiere; ».

4) 5 *bis* artikulua ezabatuko da.

5) 3., 6., 7., 8., 11. eta 14 *bis* artikuluetan, 5 *bis* artikuluar buruzko erreferentziak ezabatuko dira.

6) 11. artikuluan, 1. paragrafoa testu honek ordeztu du:

«1. Herrialderen batek onartuta badauka arauetan estalbenoak, estalbenoen eratorriak, horien gatz edo esterrak, edo tireostatikoak merkatuan jartzea, eta giza kontsumorako haragia edo produktuak ekoizteko erabiltzen diren animalia-espezie guztiei substantzia horiek eman ahal izatea, herrialde hori ezingo da agertu ustiatzeko, akuikulturarako edo haragitarako animaliak edo animalia horiek egindako produktuak inportatzeko estatu kideek zilegi dituzten herrialdeen zerrenda bakar batean ere, alegia, Europako Erkidegoek inportaziorako ezarritako zerrendan.

7) 11 *bis* artikulua testu honek ordeztu du:

«11 *bis* artikulua III. eranskinean zerrendatutako substantzietan dagokienez, Batzordeak informazio osagarria bilduko du, ahalik eta iturri gehienetako datu zientifiko berriak kontuan hartuta, eta aplikatutako neurriak aldian-aldian ikuskatuko ditu, Europako Parlamentuari eta Kontseiluari beharrezkoak diren proposamenak garatzeko aurkezteko.».

8) Hurrengo 11 *ter* artikulua hau eranstean da:

2008/97/EE Zuzentaruak (EBren Egunkari Ofiziala, L 318/9, 2008/11/28koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

«11ter artikulua Batzordeak, estatu kideen laguntzarekin, informazio- eta sentsibilizazio-kanpaina bat antolatuko du, elikagaiak ekoizteko erabiltzen diren animalietan estradiol 17 β erabiltzea erabat debekatzeari buruz; kanpaina hori EBko nekazariei eta albaitaritzaren erakundeei bideratuko zaie, bai eta Zuzentarau hau aplikatzen den eremuan sartzen diren animalia-jatorriko elikagaiak EBra zuzenean edo zeharka esportatzen parte hartzen duten hirugarren herrialdeetako erakundeei ere, egokitzen hartuz gero.».

9) II. eranskina Zuzentarau honen eranskinaren testuak ordeztu du:

2. artikulua

1. Zuzentarau honetan xedatutakoa betetze aldera, estatu kideek nahitaezkoak diren lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapenak jarriko dituzte indarrean, 2009. urteko urtarrilaren 1a baino lehen. Lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapen horien testuak ahalik eta lasterren helarazi behar dizkiote Batzordeari, bai eta horien eta Zuzentarau honen artean dauden elkarrekikotasunen zerrenda ere.

Estatu kideek xedapen horiek ezarri ondoren, Zuzentarau honi buruzko erreferentzia egingo dute edo erreferentzia horrekin batera adieraziko dira argitalpen ofizialean. Estatu kideek adierazitako erreferentzia horren modalitateak ezarriko dituzte.

2. Estatu kideek, zuzentarau honen bidez arautakoaren eremuan onartu dituzten barne-zuzenbideko xedapenen testuak helaraziko dizkiote Batzordeari.

3. artikulua

Erabaki hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hogeit eguneko epean jarriko da indarrean.

4. artikulua

Zuzentarau honen hartzaileak estatu kideak dira.

Estrasburgon emana, 2008ko azaroaren 19an.

Europako Parlamentuaren izenean Lehendakaria H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean Lehendakaria J.-P. JOUYET

9) El anexo II se sustituye por el texto del anexo de la presente Directiva.

Artículo 2

1. Los Estados miembros pondrán en vigor las disposiciones legales, reglamentarias y administrativas necesarias para dar cumplimiento a lo establecido en la presente Directiva a más tardar el 1 de enero de 2009. Comunicarán inmediatamente a la Comisión el texto de tales disposiciones legales, reglamentarias y administrativas, así como una tabla de correspondencias entre las mismas y la presente Directiva.

Cuando los Estados miembros adopten dichas disposiciones, estas incluirán una referencia a la presente Directiva o irán acompañadas de dicha referencia en su publicación oficial. Los Estados miembros establecerán las modalidades de la mencionada referencia.

2. Los Estados miembros comunicarán a la Comisión el texto de las disposiciones de Derecho interno que adopten en el ámbito regulado por la presente Directiva.

Artículo 3

La presente Directiva entrará en vigor a los veinte días de su publicación en el *Diario Oficial de la Unión Europea*.

Artículo 4

Los destinatarios de la presente Directiva son los Estados miembros.

Hecho en Estrasburgo, el 19 de noviembre de 2008.

Por el Parlamento Europeo

El Presidente

H.-G. PÖTTERING

Por el Consejo

El Presidente

J.-P. JOUYET

ANEXO

«ANEXO II

Lista de sustancias prohibidas:

Lista A, sustancias prohibidas:

- Tireostáticos,
- Estilbenos, derivados de estilbenos, sus sales y ésteres,
- Estradiol 17 β y sus derivados de tipo éster.

Lista B, sustancias prohibidas con excepciones:

- β -agonistas.»
-